

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

# 2877

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 10ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2019ko urriaren 18ko Ebazpenaren bitartez adjudikatutako prestakuntza-beka baten helmuga-herrialdea.*

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiaren 2019ko urriaren 18ko Ebazpenaren bidez, gazteak prestatzeko bekak adjudikatu ziren kanpo-harremanen eremuan, 2019rako. Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren bidez arautu ziren beka horiek.

Ebazpen horren bigarren ebazpen-zatian, zeinak II. eranskina aipatzen baitu, jasota dago Gorka Sarnago Barea espezializazio-beka baten onuradun izan zela, kanpo-harremanen eremuan, Bogotan jarduteko, Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzaren mendeko bulegoan.

Hala ere, COVID-19 koronabirusak sortutako nazioarteko pandemiak eta Kolonbiako Errepublikan ezarritako konfinamenduak eragotzi egiten dute Gorka Sarnago Bareak bekaren xede den prestakuntzarekin jarraitu ahal izatea adjudikatutako destinoan. Euskadin, osasun-egoera askoz hobea da, eta, une honetan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren Gasteizko egoitzan gara daiteke kanpo-harremanen arloko prestakuntza.

Hautaketa Batzordeak Gorka Sarnago Barearen prestakuntza-bekaren destinoa aldatzeko eskaera ebaluatu du, destino-aldaketaren ondoriozko egokitzapen ekonomikoak kontuan hartuta. Kalterik eragin ez dela kontuan izanik, kanpo-harremanen modalitatean deitu ziren eta Gasteiz destinotzat zuten bekak ez baitziren bete hautagairik ez zegoelako, aipatutako destinoaren aldaketak, prestakuntza-aldia amaitzeko falta den denborarako, adjudikatutako bekaren xedea betetzea ahalbidetzen du.

Azaldutako guztia dela eta, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Gasteizen duen egoitzara aldatzea 2019ko urriaren 18ko ebazpenaren II. eranskinean zehaztutako Gorka Sarnago Barea-ren bekaren destinoa (2019ko urriaren 29ko EHAA, 206. zk.), prestakuntza-aldia amaitzeko falta den denborarako eta destino-aldaketa horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko uztailaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpen hau aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 10a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,  
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.